

## **IMANOL BERRIATUAK HASITAKO LANAREN JARRAIPENA**

*Bilbo, 1981-X-29*

*J. M.<sup>a</sup> Satrustegi*

Imanol Berriatuak omenaldi merezia hartzen du gaur. Bere nortasunaz eta berak hasitako lanaz dudaren bat zuenik baldin bada gure artean, hemen hain ongi esandakoekin argituko zitzaitzki ongi kezka guziak. Ez naiz ni langile sutsu eta aspergaitz honen aipamena egiten ariko. Berak sortutako Oinarritzko euskararen batzordea eta lan horren jarraipena ditut gogoan. Izan ere, Kultur Sail honetako zuzendaritzan da inon baino hobeki nabari Imanolen hutsunea eta, horrexegatik, ikastaro berriaren hasiera hau omenaldi bero bilakatu da.

Norbaiten izen ona omentzeko bide asko da esker oneko gizonen artean eta hitz ederretan gelditutako aipamen eta goratzarrean ez dira beti hoberenak. Hitzetan ez baina omendua hasitako lanen jarraipenean irauten du bizirik haren izpirituak. Omenarri ikusgarrienak ez duen arnasa du egunoroko ekintza bizian oinarritutako oroitzapenak. Bide horretatik doa nik orain adieraziko dudan asmoa.

Eta gure arteko giroa nahasten hasia den unean hitz bi esan nahi ditut, nonbaiteko azti beltzek astindutako zurrumurruak bideratzeko asmoz. Euskaltzaindiak Oinarritzko euskararen arazoak bere eskutik utzi duela zabaldu da bazterretan. Egia esan, eskuarteko ekintza guziak neurtu, loturak berrikusi eta alboko arazoak uzteko asmostan dabil Euskaltzaindia. Beharrezko jorra, zuzenean dagozkion eginkizunen uza eskuratu nahi badu. Euskaltzaindiko langileek egitekorik aski izango dute datozkigun lan berezien erantzunkizunaz jabetu nahi badugu. Hori dela eta zenbait erabaki garrantzitsu hartu behar izan ditu, zenbaitzuren haserregarri. Hortik, behar bada, zurrumurruen iturria.

Nik dakidanez, Oinarritzko euskararen batzordeari dagokion etendurarak ez du aipatu Euskaltzaindiak. Besterik da bulego-langileek edozein batzordetako eginkizunak utzirik beren lana bete dezaten eskatzea. Bitartean, Imanol itzali zaigulako berri iluna ekarri digu Sortaldetik udateak, eta umezurtz gelditu da batzordea.

Iberduero entrepesak bere kezka bizia agertu dio Euskaltzaindiari eta aurreiritzi bat ematera gatoz bere bulego nagusitako areto honetara.

Goiz honetan bertan bildurik, Iberdueren eskaria arretaz aztertu du Euskaltzainburugoak, eta erabakia hartzea azken finean batzarrari badagokio ere, aurreasomoren bat behinzat aipa dezakegu. Hona beraz gaiai buruz Zuzendaritzaren ustea:

Oinarritzko euskararen batzordeari Berriatuaren asmo nagusiak betetzen joateko beharrezkoak duen babesak emateko eragozpenik ez da ikusten. Ongi edo gaizki, Euskaltzaindiaren eraginez abiatu eta bere eskutik joandako ekintza da. Heldutasunik aski gabe umezurtz gelditzean laguntza ukatzea heriotza ea ehorzketaren pareko utzikeria gerta daiteke. Ez genuke, behar bada, gure bulegotako langilerik batzordean sartuko. Hori ere, batzarrak esango du.

Korapilo nagusia ez da gurea. Imanolen hutsunea beteko duen arduradun bat aurkitu beharko da, eta hori ez da hain erraza. Gidari on baten eragina izan ohi da edozein elkargotan sostengu nagusia. Oinarrizko euskararen batzordeak burua behar du eta denok saiatuko gara bilatzen. Dagoeneko, ekintza horietan sarturik dabilen norbaiten izena aipatu da gure artean, baina harremanetan sartu eta erantzuna jaso arte esaterik ez dago. Gure borondate ona agertu nahi dugu bakarrik eta bidea ere ibilikoa da.

Beste arazorik ere badago eginkizun honen etorkizunaren harietan. Oinarrizko irakurgai eta beroien argitalpena behar beharrezko gehigarria da ikastaroetan. Zenbait liburuska atera dira urte hauetan eta beste batzu erdi eginik omen zituen Imanolek. Horiek argitaratuko dira, noski, baina aurrerantzean jarraipen bat emateko gogoa agertu du Iberduerok. Sariketa berri bat egiteko asmoa ere badabil horren inguruau.

Horrelako sariketa bat arriskugarri gerta daiteke, saritzen den lan batek nolabaiteko eduki on edo merezimenduren bat eskatzen bait du. Hobe da ikasgai edo ikastaro lagungarri bezala argitaratzea. Horren ordez, euskaraz argitaratutako libururik hoberenaren sariketa gerta daiteke. Edo egile askoren lan hautatuen bildumak inprimatu.

Esandakoak dira, gutxi gora behera, Euskaltzainburugoak erabili dituen iritzia. Zerbait gehitzekotan, hizkuntza mailan norbait espezializatzeko dirulaguntza edo bekaren bat sortzea komeni litzateke jarraipen ganorazkoa emateko.

\* \* \*

El aspecto esperanzador de este salón repleto de alumnos que inician con este brillante acto académico la andadura de un nuevo curso de euskara, es el exponente más claro del interés creciente que va despertando nuestra lengua en amplios sectores de la sociedad moderna, y constituye un estímulo para quienes tenemos el deber de dar una respuesta adecuada a tan preciada demanda.

Se ha hablado con calor y entusiasmo en las intervenciones de los oradores que nos han precedido en esta sesión de apertura de curso sobre la figura humana, religiosa y vasca de un amigo que consagró su vida con ejemplaridad a la promoción cultural de nuestro pueblo como realización de su propia vocación religiosa. Imanol Berriatua a cuya memoria se han dedicado sentidas expresiones de afecto nos lanza un reto apremiante con el vigor del espíritu que puso él en el empeño, para que no dejemos desemparada su obra. Es deber moral de quienes le arropamos en vida propiciar el desarrollo y continuidad de la experiencia iniciada por él.

Hoy que se habla de reconversión de las empresas, le ha llegado también la hora de los reajustes a la Real Academia de la Lengua Vasca que trata de adecuar los compromisos y actuaciones al campo estricto de sus competencias, lo que le obliga a renunciar a muchas actividades que ha desarrollado en circunstancias muy precarias, como única posibilidad viable en determinados momentos. Se siente orgullosa de la misión cumplida, pero se percata de que las circunstancias cambian y van surgiendo otras vías que pueden canalizar oficialmente aquellas actividades de emergencia. Eso no impide que siga patrocinando algunos movimientos que, a su juicio, requieren todavía un régimen de ayuda especial. Entre los compromisos adquiridos que en este momento se encuentra en situación crítica figura sin duda la comisión del euskera básico que ha perdido a su principal animador.



Bilbo, 1981-X-29.

*Ezkerretatik eskumatara:* Juan San Martín; Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi; Fr. Luis Villasante, *Euskaltzainburua*; Manuel Gómez de Pablos, *Iberduero Burua*; Jean Haritschelhar; Joaquín Axpe, *Iberdueroren Zuzendaria* eta Norberto Agirre.

La Junta de Gobierno de Euskaltzaindia se ha hecho eco de la preocupación de Iberduero en este sentido, y considera que la Academia debe seguir apoyando y coordinando las actividades de la Sección de Cultura que imparte la enseñanza de la lengua vasca por el método del euskara básico. Es lo que propondrá al Pleno en la próxima sesión.

Respondiendo a la sugerencia de convocar un concurso de trabajos literarios que se ajusten a la normativa del plan, la Junta se muestra partidaria de estudiar antes los riesgos que entraña dicha iniciativa y considerar la viabilidad de otras alternativas.

Concretamente, se podría convocar un concurso literario que premiara el mejor libro publicado durante el año, para estimular la actividad de los escritores.

Sería igualmente interesante la edición de libros que recogieran artículos de distintos autores para su utilización en el programa de estudios.

La creación de una beca de especialización en metodología y sistemas de enseñanza acelerada de idiomas podría ser una inversión rentable que potenciaría la eficacia de los cursos.

Entre tanto, contamos con originales del propio Imanol Berriatua que pueden ser editados inmediatamente y, entre los manuscritos hemos visto el diario que recoge la experiencia de su último viaje a Israel, hasta el día del fallecimiento.

Lo importante es la buena disposición de la entidad patrocinadora, a la que no le faltarán la colaboración de Euskaltzaindia en el generoso esfuerzo de euskaldunizar a un nutrido número de adultos que puede ser el punto de partida de una experiencia más ambiciosa.